



Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzak eta Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztak, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari atxikita, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean esleitutako eginkizun guztiak betetzen dituzte, Estatuako Administrazio Orokorraren eta beren lurraldean kokatutako erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko ekimenak koordinatuz, gainbegiratzuz eta bultzatuz.

Ematen ditugun zerbitzuak

- | | |
|--|---|
| 1 Herritarrei informazioa eta arreta. | 11 Kanpo-osasuna. |
| 2 Emakumeen aurkako indarkeria. | 12 Landare-osasuna: inportazio/esportazioaren kontrol fitosanitarioa. |
| 3 Espainian dauden etorkinei zuzendutako zerbitzuak. | 13 Animalia-osasuna: inportazio/esportazioaren albaitari-kontrola. |
| 4 Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak. | 14 Tasak itzultzea. |
| 5 Unibertsitate-tituluak legeztatzea eta unibertsitate-tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak jaso, erregistratu eta ematea. | 15 Garraioak. |
| 6 Lehergailuekin eta pirotekniarekin lotutako espedienteak izapidetzea. | 16 Justizia. |
| 7 Desjabetzeak. Balio justuaren espedientea izapidetzea. | 17 Administrazio-zehapenei dagozkien espedienteak. |
| 8 Estatuaren esku-hartzea larrialdi edo hondamendi egoeretan. | 18 Administrazio-baimenen eskaerak. |
| 9 Nazioarteko txertaketa. | 19 Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak. |
| 10 Farmazia-ikuskaritza. | |

Kalitate-konpromisoak

- Ikasketak, tratamendu medikoa eta adingabeen oporrak bisetarako gobernu-txostenak izapidetzea, eskaera jasotzen denetik gehienez 15 egun balioduneko epean.
- Nazioarteko adopzioetarako gobernu-txostenak izapidetzea eskaera jasotzen denetik gehienez 15 egun balioduneko epean.
- Adituek egindako 100 kg-tik gorako artifizio piroteknikodun ikuskizunak egiteko baimen-eskaerak ebaztea, gehienez 6 egun balioduneko epean, nahitaezko txostenak jasotzen direnetik zenbatzen hasita.
- Edozein bide erabiliz jasotako kexei erantzutea Gobernuaren Ordezkaritzan eta Gobernuaren Ordezkariordeztan sartzen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean.
- Itzulitako Emigranteen Ziurtagiriak gehienez 15 egun balioduneko epean ematea eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta izapiderako behar den dokumentazio guztia badago.
- Lehergailuak hornitzeko baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Kanpo Osasuneko, Animalia-osasuneko eta Landare-osasuneko Ikuskaritzaren espedienteak ebaztea eskaera jasotzen denetik gehienez egun baliodun bateko epean, betiere kontrol edo dokumentazio gehigarri behar ez bada.
- Erregistro Arloko Laguntza Bulegoan arreta emateko aurretiazko hitzordua esleitzea, gehienez 5 egun balioduneko epean, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Dokumentu akademikoetan sinadurak onartzeko izapideak egiteko aurretiazko hitzordua ematea eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun balioduneko epean, sinadura horiek beste Estatu batzuetan ondorioak izan ditzaten legeztatu aurreko izapide gisa.
- Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei erantzutea, Atzerritartasun Bulegoarenak izan ezik, posta jaso eta gehienez 2 egun balioduneko epean.
- Atzerritartasun Bulegoari informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei gehienez 3 egun balioduneko epean erantzutea, mezua jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Genero-indarkeriaren biktimei gehienez 2 egun balioduneko epean arreta ematea eskatzen denetik zenbatzen hasita.
- Sare sozialen bidez aurkeztutako informazio-eskaerei gehienez egun baliodun bateko epean erantzutea.

Kartaren unitate arduraduna:

EAEko Gobernuaren Ordezkaritzako Idazkaritza Nagusia

Frai Frantzisko ibilbidea, 17 – 01071 Vitoria-Gasteiz

945 759 005

secretario_general.paisvasco@correo.gob.es

https://mpt.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/



Kontsultatu hemen Zerbitzuen
Kartaren testu osoa

Argitaratzen du: Lurralde Politikako eta
Memoria Demokratikoko Ministerioa
NIPO: 127-24-007-7